



aienatu 'uxatu, desagertu'	«...han hartu zituen begiondokoek egin zizkioten ubelak aienatu baino lehen...»	(175)
aieneka 'kexuka, "ai, ene" esaten'	«Leiho ondoan aitagureka eta aieneka egon zen Iñaxiren eztiardia!»	(50)
aiko-maikoetan 'ezbaian, zalantzatan'	«Hemen dabil orain aiko-maikoetan txitxila-patxala txotxolo hori!»	(190)
aintzakotzat hartu 'kontuan hartu, garrantzia eman'	«Ustez, behintzat, ez zuen inork aintzakotzat hartu .»	(10)
aitagureka 'errezatzen'	«Leiho ondoan aitagureka eta aieneka egon zen Iñaxiren eztiardia!»	(50)
aitatu 'aipatu, aipua egin'	«...ate ondoan zegoena bere senarrak aitatu zion Garaidi jauna zela jakin zuenean...»	(36)
akartu 'ahakartu, "bronka bota"'	«—Ondo gogor egin diozu Muñube gizajoari — akartu zion bere emazteak—. Begitan hartu al duzu, ala...»	(127)
alajaina 'ene!, kontxo!' (harridurazko)	«Txomin gizajoa zezenaren adarretan utzi, alajaina! Egundaino horrelakorik! Uste zuen, ba, berak nahiko azkarra zela!»	(41)
alena 'alaena, halakoa'	«...erantzun zion neskatzak purrustaka. Eta... di-da, leihoa itxi zuen. Horra dena txikitzeko artea! Trakets alena! »	(11)
amor eman 'amore eman, etsi, galdutzat	«Baina... hau ere, bere sendotasunean, amor ematen hasia zen.»	(167)
amore eman 'etsi, galdutzat eman, ekina alde batera	«Honetan, ez bat eta ez bi, Txominekin errukituta edo, eraso amore ematen hasi zen.»	(11)
aresti 'denbora tarte laburra'	« Aresti hartan, guztian bildu zirenean, norbait osoro haserretu...»	(191)
argiketan 'ikertzen, ikerketan'	«Nori aurpegia eman? Nola inork igerri gabe argiketan jarraitu?»	(82)
ari beharko '(nahitaez) ibili behar, ekin	«—Ari gara, e? —Ari beharko... Etxekoandre!! —zioen berriz oihuka.»	(53)
arian-arian 'pixkana-pixkana'	«Baina arian-arian —hasi zen beriz Garaidi—, arian-arian, beste harrigarritzko gauzak jakin behar ditut.»	(196)
arlote 'txarto jantzia, zarpaila'	«...inor ageri ez zen halako batean, kalez kale eta tipi-tapa, gizontxo arlote bat azaldu zen.»	(10)
arra beteko aho zabalik 'zeharo harrituta'	«...eta azkenean arra beteko aho zabalik ...»	(91)
arranditsu 'despanpanatea'	«Ez oso arranditsu , baina dotore eta txukun bai.»	(177)
arratsalde on dizuela 'eman diezazuela' (Agur hitzak)	«—Jaungoikoak arratsalde on dizuela! —zioen berehala atean azaldu zen gizaseme dotore batek.»	(20)
arrautza gorringoari... 'ezinezkoa den zeozer adierazteko	«Hura harrapatu nahi izatea eta arrautza gorringoari danbolina jotzea ... gauza bera.»	(92)
arren eta arren 'mesedez'	«Horrexegatik, pixka bat itxaroteko eta ondo entzuteko... arren eta arren eskatzen dizuet...»	(193)
artozuritze 'artoari garauak ateratzea'	«—To!!... Artozuritzea al dugu gaur hemen?...»	(211)
askoren mina txoroen atsegina '("Mal de muchos, consuelo de	«...Txomin, behintzat, bestearen larritasuna ikusirik, lasaituz zihoan. Askoren mina txoroen atsegina ...»	(18)
astakirten 'astapotroa, tentela, papaua'	«—Eta, zer dio astakirten horrek?»	(123)



atarramendu 'probetxua, emaitza'	«Ez dugu hemen atarramendu onik!...»	(148)
atxi-atxika 'oratuz, helduz'	«Mutil kozkor batzuk, atera orduko lasterka, atxi-atxika , jauzika...»	(105)
baldar 'trakets, dorpe'	«Hanka bihurri hau dela-eta gurdi irauli bat baino baldarrago nabil...»	(77)
bapo-bapo 'ederto, gustu-gustura'	«...guztia estaltzen duen laino haren gerizean, bapo-bapo zegoenean...»	(175)
barbarka 'marmarka, gaizki esaka'	«...erantzun zion Joxe Jokinek haserre antzean barbarka ...»	(211)
barrulanean ibili 'pentsatzen, zerbaiti buruz'	«Jai arratsaldea gehienentzat atsedean garaia izaten da, baina, baziren batzuk, Garaidiren gainez, barrulan gogorretan zebiltzanak.»	(144)
bazen-ezpazen 'badaezpada'	«Garaidi, bazen-ezpazen, ez zen haren aurrean azaldu.»	(67)
bederen 'behintzat, behinik behin'	«Hala ere, zentzu pixka bat sartu arte, bederen , bere ondoan edukitzea hobe izango zela-eta, zuri-zuriki bereganatu zuen.»	(32)
begi-begi 'adi-adi, ardura edo arreata handiz'	«...Karmentxoren etxeari begi-begi begira...»	(109)
begiluze '("fisgona") beti zelatan dagoena'	«...Joxepa, Herriburutarren neskame zintzo eta... begiluze eta pertxenta xamarrak...»	(123)
begitan hartu 'nor bait gaizki hartu, "mania"'	«—Ondo gogor egin diozu Muñube gizajoari —akartu zion bere emazteak—. Begitan hartu al duzu, ala...»	(127)
behatz danbolina jo 'hatzez danbor soinua atera'	«Bestea, aulki ertzean behatz danbolina jo az, aurrean zeukan irudi bati begira.»	(181)
behinik behin 'behintzat, bederen'	«...guztia ixilik edukiko zuen hitza eman zion, behinik behin ...»	(38)
bekaizkeria 'inbidia'	«Ez du Urgainek Donostiaren bekaizkeriarik , ez!»	(56)
beldurak bezala 'beldur balitz bezala'	«—Zure senarrarekin hitz egiteko asmotan etorri naiz... hasi zen Txomin, ez naiz-banaiz, beldurak bezala ...»	(16)
berak 'haiek, beraiek'	«Eta, kale erdian, erreskadan zintzilika zeuden argiak, berriz (...) berak izarrak balira bezala, harro-harro eginda...»	(9)
bere honetan utzi 'dagoen-dagoenean utzi'	«—Zer, ba? Dena bere honetan utzi ?»	(21)
bere kautan 'bere kabutan, bere golkorako'	«Honek hilobian ikusitakoa esan dio!', zioen bere kautan Garaidik.»	(145)
berebil 'beribila, automobila'	«Garaidiren berebil txiki haren barruan zeuden...»	(147)
berriketarako bide eman 'hizketagaia eman'	«Ez zuen Txominek berriketarako bide eman beharrik, ez!»	(50)
bidetxior 'bide zidor'	« Bidetxior bazterretan ihintza ugari; belar hosto, sasi adartxo, dena ihintza ale nainartsuz beterik; han eta hemen putzu zulo franko, lokatz eta harri kozkor	(51)
bihotz pil-pil 'urduri, bihotza taupadaka'	«Txomin sukalde txokoan, bihotz pil-pil , kuzkurtu zen; Maritxu, lehiatsu kuzkuzean jarri.»	(25)
bizitza 'solairua'	«eta nola edo hala, tirriki-tarraka, bat aurretik eta ixil-ixilik bestea atzetik, goiko bizitzara igo ziren...»	(79)
bizkar-bizkar 'lepoa emanez, atze-atzean'	«—Zer? —galdetu zion, bere ondoan, bizkar-bizkar , aulkiaren beste aldean eseri eta aurpegia begiratu ere gabe.»	(113)



bon-bon 'ondo-ondo'	«Baina nik, behintzat, nahiago dut han eguzkitan bon-bon kixkaltzen egon baino, Amasetako lizardian zuhaitz kerizean egon...»	(56)
burrundara osoan joan 'ahalean joan, ziztu bizian'	« Burrundara osoan zihoan.»	(41)
burruntzaliaren kirtena (Esamoldea) 'kaka zaharra, hutsa'	«Orratza eta burruntzaliaren kirtena! »	(85)
buru txikiak laster gainez 'tentela berehala ezinean'	«Bazirudien ilargia bereganatu zuela! Haren zarata! Haren poza! Izan ere, buru txikiak laster gainez... »	(117)
buru-lanean 'gogoetatzen, hausnartzen'	« Buru-lanean , kopeta zimur, ixil-ixilik geratu ziren.»	(31)
buruhauste 'katramila, nahastea'	«Honetaz, bazegoen han buruhauste ederra.»	(81)
burutatzea ere! 'asmatzea ere!, pentsatzea ere!'	«Bai, zera! Burutatzea ere! ...»	(24)
dena begi (egon) 'ikusgura bizi az egon'	«Beste biak dena belarri. Karrankik ere ez haren eztarrian, hitz ebaki bat bakarria ere ez... Beste biak dena begi... »	(140)
dena begi-belarri izan 'adi-adi egon, interes handiz'	«...begiak gainetik kendu gabe, dena begi-belarri zen eta...»	(17)
dena belarri (egon) 'entzungura bizi az egon'	«Beste biak dena belarri . Karrankik ere ez haren eztarrian, hitz ebaki bat bakarria ere ez... Beste biak dena begi...»	(140)
di-da 'momentuan, ato berean'	«...erantzun zion neskatzak purrustaka. Eta... di-da , leihoa itxi zuen. Horra dena txikitze artea! Trakets alaena!»	(11)
dringilin don (Hitz jokoa, errima egiteko)	«Hori dela-edo esan ohi den bezala, " dringilin-don, bataren gaitza bestearen on " dela-edo...»	(18)
ederra sartu 'garrantzizko zeozer adierazi'	«Eta lehen baino mutuago geratu zen. Ederra sartu zion!»	(28)
eguna joan eta eguna etorri 'handik apur batera'	« Eguna joan eta eguna etorri , ez zen asko, egia esan, Garaidik, zortzi egun haietan argitu zuena.»	(165)
egundaino ere 'Ene, halakorik!'	« Egundaino ere! Eta orain, gertatutakoak gertatu eta... Egurmendi bere etxera?...»	(148)
egundaino horrelakorik 'halakorik!, gertatzea ere!, egitea'	«Txomin gizajoa zezenaren adarretan utzi, alajaina! Egundaino horrelakorik! Uste zuen, ba, berak nahiko azkarra zela!»	(41)
egundalako 'egundokoa, izugarria,	«...langile arteko egundalako zarata izango zela Urgainen, noski.»	(157)
elkar hartuta 'bat eginda, konpintxatuta'	«Biak elkar hartuta ez ote zebiltzan?»	(53)
eragin 'mugitu'	«Eta kalean gora eta behera begiratu ondoren, ate-ezkilaren burdinazko katetxoari geldi-geldi eragin zion.»	(10)
erbeste 'atzerria'	«...biharmonean erbestetik jende asko etorriko zela noski, eta meza ederra izango zela, eta...»	(28)
erdeinu 'gutxiespena, mesprezua'	«Bo!... Xomorro xamarra... —erantzun zion Herriburuk erdeinuz gainezka.»	(126)
erdi tuntun 'tentelduta bezala'	«—Ezer ez... —erantzun zion bere alabak, erdi tuntun. »	(99)
erdoitu 'herdoildu, ugertu'	«Lehenbailehen, orain bertan, hartu itzazu mailua eta eta erdoitutako iltze batzuk...»	(34)
erralde 'neurria: 5 kilo edo 10 libra'	«Hezur eta guzti hogeita hiru erralde bai!...»	(160)



erreskadan 'ilaran'	«Eta, kale erdian, erreskadan zintzilika zeudén argiak, berriz (...) harro-harro eginda, zabu-zabuka eta keinuka. Haien poza!»	(9)
erretxin 'petrala, kanpixa'	«... ez zintuzke neskametarako hartuko! Erretxin alena!...»	(210)
etorria 'esateko asko edukitzea'	«Ahoa janez beteta zeukala ere ez zen ixiltzen eta! Haren etorria ! Huraxe bai berritsua!»	(59)
euria goian-behean 'zaparrada indartsua'	« Euria goian-behean , hotza, haizearen txistua...»	(9)
ez bat eta ez bi 'luze gabe, berehala'	«Honetan, ez bat eta ez bi , Txominekin errukituta edo, eraso amore ematen hasi zen.»	(11)
ez jakina egin 'ezer ez jkitearen itxurak egin'	«Dena dela, ni etorriko ez banintz ere, guztiei ez jakina egin , ezer gertatu ez balitz bezala...»	(34)
ez naiz-banaiz 'zalantza, dudatan'	«—Zure senarrarekin hitz egiteko asmotan etorri naiz... hasi zen Txomin, ez naiz-banaiz , beldurrak bezala.»	(16)
ezespén 'ezin onartua'	«...konplexu edo esaten dioten bereganako ezespén bat zuela...»	(160)
ezkila 'kanpaitxo'	«Eta kalean gora eta behera begiratu ondoren, ate- ezkilaren burdinazko katetxoari geldi-geldi eragin zion.»	(10)
ezpaltxo 'egur zatitxo, printza'	«...Egurmendiren etxean ostutako ezpaltxo hura utzi zioten.»	(146)
galtza-zahar 'arlotea, zarpaila'	«Noiztandik Txomin, betiko galtza-zahar , Egurmendiren emazteari zer egin behar zen esanaz?»	(19)
gero gerokoak 'batik bat, batez ere'	«Hartaz, gero gerokoak , hiru gizon zeuden han zaindu beharrak...»	(82)
gezalgai 'itsas uraren hezetasuna'	«Tximista borrokalari horiek, berriz, haizean izaten den gezalgaiaren aurka jo eta...»	(169)
gibel jale 'gaizki esaka dabilena'	«...beti izango dugu mingain zorrotz, gibel jaleren bat, orain eta gero...»	(208)
gibel txarra izan 'patxadatsua, gibelaundia'	«—Ez duzu gibel txarra —zioen Iñaxik hirurak elkartu zirenean.»	(50)
giro ederra izan 'egoera goxoa izan'	«—Kaixo, Txomin! Ez dugu giro ederra gaur, e? —hasi zitzaion alai eta goxo...»	(29)
goratu 'goraldu, goretsi, alabantzaz bete'	«Ilemoztegian, behintzat, ondo goratu zuten!»	(54)
gorotzekoa 'kakaz egindakoa'	«...usain txar guztiak ere... ez direla gorotzekoak izaten.»	(208)
goxo jarri 'haserretu, amorratu'	«—Egia! Hau lana! Goxo jarriko da Egurmendi hori azaltzen denean! Baina..., zer egin genezake?»	(19)
guri 'biguina, apatza'	«...bere Ingelako eserleku guri batean lasai-lasi eseri eta...»	(39)
haien gibela! 'zein patxada handikoak I'	«Han ari zitzaizkidan morroiak beren biziko patxadan gauzak igotzen. Jaunak! Haien gibela! !...»	(61)
haien poza! 'izugarri pozik zeuden'	«Eta, kale erdian, erreskadan zintzilika zeudén argiak, berriz (...) harro-harro eginda, zabu-zabuka eta keinuka. Haien poza! »	(9)
handiputz 'harropestea'	« Handiputz alena!...»	(153)
handiputz 'harroa'	«Huraxe handiputza! Hala ere, zentzu pixka bat sartu arte, bederen, bere ondoan edukitzea hobe izango zela-eta...»	(32)



hango hotza! 'hotz handia'	«Hango euri-zaparrak! Hango haize-zurrunbiloak! Hango hotza! »	(9)
haren dardara! 'dardarka zegoen nabarmen'	«...teilajario guztien azpiz azpi zihoala, euria ari zuenik ere ba al zekien, ba, hark? Eta haren izu-aurpegia! Eta haren dardara! Eta...»	(10)
haren izu urpegia! 'erabat izututa zegoen'	«...teilajario guztien azpiz azpi zihoala, euria ari zuenik ere ba al zekien, ba, hark? Eta haren izu-aurpegia! Eta haren dardara! ...»	(10)
hiltzoriko amets 'hil aurreko ametsa'	«Baina... nire osabaren hiltzoriko amets haiek entzunez gero...»	(154)
hitzetik hortzera 'bat-batean, berehala'	«—Zurekin hitz egin nahian nengoen... —hasi zitzaion hitzetik hortzera. »	(62)
hortakoxe zegoen! 'ez zuen besterik behar!'	«Txistorra ari! Hortakoxe zegoen! Lehenbailehen etxe hartan sartu eta bere barrua hustu!»	(12)
hoska 'marka'	«Ba, haren gorpua ikusi dut eta... kopetan tiro baten hoska dauka!...»	(17)
hots egin 'deitu'	«Hala ere, lekaime-etxe bateko kanpai lotsati baten antzera, legun-legun hots egin arren, oso ederdi entzun zen...»	(10)
hurreratuta 'hurbilduta'	«...—zioen han sukalde ondoan zegoen sehaska aldera hurreratuta Iñaxiri belurra uxatu nhian.»	(36)
ibilian-ibilian 'ekin eta ekin'	« Ibilian-ibilian , bere begi aurrean azaltzen ziren herri, mendi...»	(174)
ideko izan 'tankerakoa, parekoa'	«...baina... berak zioena; Egurmendiren emaztea izateko nolakoari halako, ez ote zen, ba, honen idekoa izan? Nola ez, ba?»	(19)
idortu 'lehortu, sikatu'	«Nahiko lan zeukan sudurretako odol jariora idortzen!»	(78)
igarri 'susmatu'	«...galdetu zion besteak ezer igarri baino lehen...»	(130)
ihintza 'garoa, goizetan landareetako ur	«Bidetxior bazterretan ihintza ugari; belar hosto, sasi adartxo, dena ihintz ale nainartsuz beterik; han eta hemen putzu zulo franko, lokatz eta harri kozkor	(51)
ikazgai 'ikatza egiteko lehengaia'	«...karbono berezi bat sortzen dute; ikazgai astun bat.»	(169)
ilunabar 'iluntzea'	« Ilunabarra zen... Negu gorriko ilunabar bat...»	(9)
inurri 'txingurria, intsektu mota'	«...hau, berriz, inguru-minguruka, inurri galdua bezala.»	(144)
ipurterre 'geldi egon ezin dena'	«Hark egin lezakeena! Ipurterre alena!...»	(92)
irizkidetu 'iritzian bat etorri, ados jarri'	«...era honetan, denbora luzean ihardun ziren irizkidetu ezinik.»	(128)
irrikoi 'irribarretsu'	«Erantzun zion honek irrikoi , jostaketa hari jarraituz.»	(186)
irudikeria 'espejismoa, ilusioa'	«Horren jakintzaren aita ezjakina zen, eta bere ama... bere irudikeria. »	(162)
iskirioka 'iseka, burlaka'	«Eseri, eseri, jaunak! —zioen Garaidik bere aldetik iskirioka. »	(196)
istilu gorriak 'istilu latzak, gogorrak'	«Bazekien zoro xamarra zela, baina hain sendo eta hain setatsu zegoen bere ustean!... Han ikusi behar iren istilu gorriak! Jauna!»	(24)
itutea 'itogina'	«Goizko leihoa ez zebilela ondo edo, sukaldeko iturriak jariora zeukala edo, itutea zutela edo, ispilu bat zintzilikatu behar zutela edo...»	(12)



ixo 'isiltzeko hitza'	«Hasi eta ixo .»	(144)
izkiri-miriak 'garrantzi gutxiko berbeta'	«Ez zen, ez, erraz izan honi buru-muinetaraino sartu zitzaion hotz ikara uxatzea. Joxe Jokinen izkiri-miriak zirela, Txominen izua zela...»	(72)
izua 'ikaragarritzko beldurra'	«Ederki asko igarri zuen Garaidik haren izua ...»	(85)
kako-kako eginda 'makurturik, ezkutuan'	«Hantxe zeuden, behintzat, kako-kako eginda , kirika. Eta ez zen lan makala, alajaina!»	(147)
kankailu 'handia eta desorekatua'	«Huraxe bai kankailua! »	(160)
kanotu 'koxkortua'	«Dena kanotua zihoala ikusirik, bustitzeko beldurra zeukala esan zitekeen...»	(10)
karranka 'eztarriko zarata ahotsa	«Beste biak dena belarri. Karrankik ere ez haren eztarrian, hitz ebaki bat bakarra ere ez... Beste biak dena begi...»	(140)
kerizpean 'gerizpean, itzaletan'	«Baina nik, behintzat, nahiago dut han eguzkitan bon-bon kixkaltzen egon baino, Amasetako lizardian zuhaitz kerizean egon...»	(56)
kezka-habia 'ardura lekua, kezka gune'	«Txominen etxeok, bi kezka-habia , ez zekiten ezer...»	(146)
kikilarazita 'izututa'	«...Joxe Jokinen ostatuko ate ondoan babestuta eta, hotsak edo... beldurrak kikilarazita kuzkur-kuzkur eginda, aurkitu zuten...»	(144)
kikildua 'beldurtua'	«...bere txpela esku artean zermla, buru-makur eta osoro kikildua gure Txomin gizajoa.»	(29)
kilin-kalan 'loka, tinkotasuna galduta'	«...elkarri berezikoak emanak dira. Berdin, begi-ondo bat beztuta, bi edo hiru hortz kilin-kalan eta, txikimila puska eginda, lorontzi bat lurrean.»	(76)
kirika 'zelatatzen	«Hantxe zeuden, behintzat, kako-kako eginda, kirika . Eta ez zen lan makala, alajaina!»	(147)
kiskil 'ziztrina, zikoitza'	«Urgaindarren begi aurrean agertzen ziren bezain egokiak ala zital kiskil hutsak?»	(155)
kiskil 'zekena, zikoitza'	«Zital, kiskil hutsa!... jakin izan banu!...»	(87)
kixkilduta 'suminduta, erreta, kabreatuta'	«Oraintxe erotuko nauk! —zioen kixkilduta -.»	(161)
koipe-koipetsu 'balakuka, hitz xamurrekin'	«...atarian azaldu orduko, Pirmin bereganatu zitzaion koipe-koipetsu eta...»	(49)
kopeta 'bekokia'	«Ba, haren gorpua ikusi dut eta... kopetan tiro baten hoska dauka!...»	(17)
korde gaberik 'konortea galdurik'	«Emakume haren sarrasta ez zen txikia! Korde gaberik aurkitzen zen, baina, oraindik bizirik...»	(205)
kutsuko 'kutsakorra'	«—Gazterik, e?... Zer izan zuen, ba? —Tifusa... — Kutsukoa , beraz. —Bai, berehala lurperatu behar izan genuen...»	(141)
kutuntasun 'gauza goxoa, detaile ona'	« Kutuntasunik ez behintzat.»	(153)
kuzkurtu 'bere baitan bilduta'	«...burua esku artean, osoro xahutua, zapaldua, dena kuzkurtua ...»	(88)
kuzkuzean jarri 'besteena entzuten'	«Txomin sukalde txokoan, bihotz pil-pil, kuzkurtu zen; Maritxu, lehiatsu kuzkuzean jarri .»	(25)
lasai asko 'oso lasai, lasai-lasai'	«Hara, ba, han lasai asko! »	(148)



laurak-lauretan lauretan puntuan'	«...datorren osteguneko arratsaldeko laurak-lauretan Loiola kaleko...»	(174)
legun-legun 'leun, leunkiro'	«Hala ere, lekaime-etxe bateko kanpai lotsati baten antzera, legun-legun hots egin arren, oso ederki entzun zen ixiltasun hartan.»	(10)
lehertutako kupelak... 'ezin dena, ezinezkoa da'	«Baina lehertutako kupelak ezin sagardoari eutsi. »	(91)
lehiatsu 'gogo handiz'	«Txomin sukalde txokoan, bihotz pil-pil, kuzkurtu zen; Maritxu, lehiatsu kuzkuzean jarri.»	(25)
lekaime 'monja'	«Hala ere, lekaime -etxe bateko kanpai lotsati baten antzera, legun-legun hots egin arren, oso ederki entzun zen ixiltasun hartan.»	(10)
ludi 'mundua, Lur planeta'	«Era honetan, beti sortzen eta beti deusezten gure ludiko arnas haizean...»	(169)
maindire 'izara, oheko oihala'	«Ohea urratu eta, han lo egin balu bezala, maindireak zimur-zimur egin ondoren, leiho ondoan bapo-bapo eseri zen.»	(46)
maitasun oinaze 'maitasunak sortutako mina'	«...bere maitasun oinazeak buka daitezten eta...»	(209)
makal 'ahula, koitadua'	«Borrokan egiteko ez zirudien makala! »	(48)
maratza 'fina, langilea'	«...oso langilea zen ostatuko eginkizunetan. Langilea, garbia, maratza... Ondo pozik zeuden, bai, han bizi zirenak!...»	(52)
margul 'zuri, kolorgea, bizitasunik gabe'	«Gizaseme egokia zirudien. Hantxe zebilen margul eta goibel, atsekabez betea...»	(67)
marmar 'askoren hizketa ixil eta nahasia'	«...arkupetan gerizpeturik zeuden gazte batzuen etengabeko berriketaren marmarra besterik han ez zen.»	(9)
mataza 'hari multzokatua' (ovillo)	«... "baina, Martin!, mataza berri honek ez du oringo muturrik ageri!"...»	(39)
mauka-mauka 'aho beteka jaten'	«...eta bi arrautza frijitu ekarri zizkieten eta mauka-mauka hasi zen.»	(53)
maxioka 'maiseatzen, gaizki esaka'	«Utikan! Zer zabilta hemen, maxioka , ala?»	(150)
milikatu 'zaporea hartuz miazkatu'	«...hasi zitzaion berriketa-gai bikain hura zela-eta, hitz bakoitza ahoan milikatuz... »	(75)
motots 'ile bildua ("moñoa")'	«...ez zitzaion nonbait burua txoriz bete; ez zitzaion Egurmendiren aberastasuna mototseraino igo.»	(69)
muturjoko 'borrokaldia'	«Bart arratseko muturjokoak... bost ajola hari.»	(83)
muzinduta 'purrustaka, mainaka, negarka	«...zioen Muñubek musinduta bezala puskaka...»	(153)
nahaspila 'nahaste, saltsa, anabasa'	«— Nahaspila ederrean sartu behar ditugu Egurmenditarrak!»	(21)
nainartsu 'distiratsua, dizdizaria'	«Bidetxior bazterretan ihintza ugari; belar hosto, sasi adartxo, dena ihintz ale nainartsuz beterik; han eta hemen putzu zulo franko, lokatz eta harri kozkor	(51)
negu gorri 'negu-negua'	«Ilunabarra zen... Negu gorriko ilunabar bat...»	(9)
neroni 'ni, neu'	«...eta neroni oraindik Donostiara joan beharrean nago.»	(34)
nolakoari halako 'halako pertsonari halako laguna	«...baina... berak zioena; Egurmendiren emaztea izateko nolakoari halako , ez ote zen, ba, honen idekoa izan? Nola ez, ba?»	(19)



noski baino noskiago 'guztiz jakina dena'	«Harrituta, noski! Noski baino noskiago! !...»	(156)
odolaldi 'beroaldia, haserraldia'	«Haren odolaldiak! !...»	(198)
oldarka 'erasoan bezala, indartsu'	«...erantzun zion Herriburuk oldarka eta aho beroz...»	(124)
ondoan 'aldean (konparazioa)'	«Bestelako gauza Garaidi jauna, sukaldean zegoen Txomin zozoaren ondoan! »	(25)
opor egin 'huts egin, ez bete'	«Eman zion hitza ez zion gorde behar bezala! Opor egin zion, alajaina!»	(145)
orbain 'mantxa'	«...kopetako orbainaren ondoa motots txuri-txuri bat izan zuen.»	(160)
orpoz ipurdi 'atze-atzetik, hur-hurretik'	«Ez zen, ba, goiz guztian, orpoz ipurdi , bere bila ihardun!...»	(102)
orpoz orpo 'hurbil-hurbiletik, hur-hurretik'	«Laster zituen, berak asko igarri gabe, orpoz orpo , gure bi lagunak...»	(108)
parparan mukia 'galeper mukia, euli kaka ("moco de	«Ez zen, ez, hauxe, parparan mukia! !...»	(103)
pertxenta 'itxura onekoa, galanta, dotorea'	«...Joxepa, Herriburutarren neskame zintzo eta... begiluze eta pertxenta xamarra...»	(123)
pinpilinpauxa 'tximeleta'	«Argiak pinpilinpauzak bereganatzen ituen bezala, arkupetako denden argitasunera hurbilduta zeuden gazte haiek...»	(10)
pipertuta 'haserre antzean, suminduta'	«—Ba... ez, ez! —erantzun zion besteak pipertuta —. Ez nazan nahastu, neska!»	(116)
pixar 'apur, pixka'	«...baliteke, bai, hemen barruan gorroto pixar bat izatea Egurmendiri.»	(153)
pulman 'autobusa'	«Bilbotik Donostiara zihoan eguerdiko pulmana .»	(174)
purrustaka 'protestaka, ia haserre'	«...erantzun zion neskatxak purrustaka . Eta... di-da, leihoa itxi zuen. Horra dena txikitzeke artea! Trakets alaena!»	(11)
sarrasta 'hunkipena, inpresioa'	«Emakume haren sarrasta ez zen txikia! Kordegaberik aurkitzen zen, baina, oraindik bizirik...»	(205)
sarri 'laster'	«—Eskerrik asko, Iñaxi. Sarri arte. Agur.»	(51)
sasibide 'arazoa, nahastea'	« Sasibide ederrean sarrarazi zuen sartu ere!»	(25)
sasibideetan sartu 'bide faltsuetan, okerrekoetan'	«Nik ez nuke nahi sasibideetan sartu ...»	(22)
seta 'kasketa, egoskortasuna'	«Urteak joan eta urteak etorri, ilea zuritu zitzaion baina... bere seta txarra ez.»	(160)
setatsu 'tematia, setatia, egoskorra'	«Bazekien zoro xamarra zela, baina hain sendo eta hain setatsu zegoen bere ustean!... Han ikusi behar iren istilu gorriak! Jauna!»	(24)
susmakari 'errudun ustekoa'	«Joxe Jokin susmakari »	(115)
susmurtu 'susmatu, barruntatu'	«Eta ez zirudien besteek zekarten istilua susmurtu zuenik.»	(26)
taju 'izaera, portaera'	«—Berak dioenez, bere osabak emana du. Taju onekoa al zen hura?»	(126)



tar-tar 'segituan, gelditu gabe'	«...eta honela hasi zitzaizen, tar-tar , gure Joxe Jokin.»	(97)
tipi-tapa 'oinez, ez oso arin'	«...inor ageri ez zen halko batean, kalez kale eta tipi-tapa , gizontxo arlote bat azaldu zen.»	(10)
tirriki-tarraka 'tarraz ia, nola edo hala, ondo ibili'	«eta nola edo hala, tirriki-tarraka , bat aurretik eta ixil-ixilik bestea atzetik, goiko bizitzara igo ziren...»	(79)
toteldu 'hitz egiteko zailtasuna izan'	«... toteldu egin haiz, ala?»	(162)
tupateko 'taupada'	«Bertaratzen zihoan bezala, orduan eta tupateko haundiagoak ematen zizkion bihotzak.»	(42)
tutik ere ez 'ezertxo ere ez'	«Baina Txomin zintzo-zintzo egon zen gu hartan eta ezin atera izan zion tutik ere .»	(28)
txarranpindun 'gorriuneak dituen, elgorria'	«...oihuka eta zalapartaka hasi beharrean, burua makurtu, kokotsa lepoan sartu, eta txarranpindun ume bat baino gorriago...»	(151)
txatxalkeria 'azalkeriak, txotxolokeriak'	«...txurrutaka eta aldamenekoen txatxalkeriak entzunaz, denbora puxka batean egon zen.»	(83)
txearo-txearo 'zehatz-mehatz, erabat'	«Eta haiek, orduan, ohitura zen bezala, txearo-txearo , Pagodiren gertaera guztiak burutik azkeneraino adierazten baitzituzten.»	(80)
txikimila puska egin 'zirtzilata, txiki-txiki eginda'	«...elkarri berezikoak emanak dira. Berdin, begi-ondo bat beztuta, bi edo hiru hortz kilin-kalan eta, txikimila puska eginda , lorontzi bat lurean.»	(76)
txikitu 'apurtu, triskatu'	«...erantzun zion neskatxak purrustaka. Eta... di-da, leioha itxi zuen. Horra dena txikitze artea! Trakets alaena!»	(11)
txima-jario 'zapazto, ilea luze duena'	«Amundatarren etxean ere, inor ez; goiko bizitzako txima-jario hark ez zekien ezer...»	(146)
tximistak egiten 'ziztu bizian, korrika'	«...bere berokia hartu eta, tximistak egiten , lasterka bizian...»	(91)
tximistilo 'txirristiloa, lokarria edo lazua'	«Beste era batera: korapilo honek emango digula beste tximistilo horren hari-muturra.»	(126)
txinparta 'txispa'	«Pirmin txinpartak zerizkiola zegoen eta Egurmendi bere ere...»	(199)
txitxili-patxala 'ganoragabe hitz egin'	«Hemen dabil orain aiko-maikoetan txitxila-patxala txotxolo hori!»	(190)
txorabilarazi 'txorbiatu, txoratu'	«...Mariren ahizpa, alemanek, bere ahizpa etorrarazteko setaz txorabilarazi gabe, hil zela eta, bakean utziko zuten.»	(206)
txorabildu 'txoratu'	«Bi ordu luze haietan, hamaika bira eman zizkion bere buruari! Ederki txorabildu zen!»	(19)
txorabildua 'txoratua, liluratua'	«...oso txorabildua naukate.»	(100)
ubel 'ubeldura, odol bildua'	«...han hartu zituen begiondokoek egin zizkieten ubelak aienatu baino lehen...»	(175)
usterik gutxienean 'uste ez delarik, ustakabea'	«Larunbata: usterik gutxienean ...»	(74)
utikan 'kanpora!, utzi bakean!'	« Utikan! Zer zabilta hemen, maxioka, ala?»	(150)
uxatu 'aldendu, urrundu'	«...—zioen han sukalde ondoan zegoen sehaska aldera hurreratuta Iñaxiri beldurra uxatu nahian.»	(36)
xahutua 'desagertua'	«...burua esku artean, osoro xahutua , zapaldua...»	(88)



"xantuak" 'irudiak'	«—Ez, jauna, ez! Orri bete-betea dakar eta! " Xantuak " eta guzti!»	(116)
zabu-zabuka 'balantzaka, alderoka,	"Eta, kale erdian, erreskadan zintzilika zeudén argiak, berriz (...) harro-harro eginda, zabu-zabuka eta keinuka. Haien poza!»	(9)
zalegarri 'estimagarria'	«...bere aurrean senargai zalegarria azaldu...»	(153)
zanpa-zanpa egin 'ondo zanpatu (itzaltzeko)'	«Garaidik bere zigarroa zanpa-zanpa egin eta ondo itzali ondoren...»	(170)
zapelaitz 'hegazti harraparia'	«Han zeuden, beren ustez, usoa eta zapelaitza , ardia eta otsoa...»	(192)
zapuzti 'lotsakor'	«—Nik al dakit, ba!... —erantzun zion Muñubek zapuzti .»	(87)
zarraztatu 'urratu, tarratadaz apurtu'	«...galtza zarraztatutako askok esango zuketena: zaunkari ez dena ere, hoskari ez balitz!»	(12)
zaunkaria 'zaunka, adausi egiten duena'	«Eta bitartean, txakurra zaunka eta zaunka. Txakur zaunkaria , gutxitan hoskaria, esan ohi da.»	(12)
zentzatu 'zentzudun bihurtu'	«Buru arina zen baina, zentzatu zen!»	(98)
zikilisaltsa 'nahaspila, nahaste-borrastea'	«Ez gaitu, ba, zikilisaltsa ederrean sartu zure ihesiak!»	(183)
zimel 'ihartua, argala'	«Ni nago zimelen eta begira nazazu!... —erantzun zion barrez eta lodi itxuran jrririk.»	(26)
zimikoka 'eztenkadaka, ziztadaka'	«Nola uxatu bihozondoan zimikoka zeukan zomorro hura?»	(102)
ziri-mara 'garrantzi gabeko gauzak egin'	«—Hori da —ebaki zion bere aitak, ziri-mara , batetik bestera zebilela.»	(98)
zirikatzaile 'adar jotzen aritzen dena'	«...—galdetu zion zirikatzaile bere jakin nahi hartan.»	(28)
zital 'doilorra, gaiztoa'	« Zital , kiskil hutsa!... jakin izan banu!...»	(87)
zitalkeria 'gaiztakeria'	«Norbaiti esker bat egin eta honek zitalkeriaz ordaintzea...»	(57)
ziziputzika 'nahaste-borrastea'	«Asto kankailu galanta ni, ziziputzika honetan sartu naizena!...»	(88)
zoli 'ozena, ahots indartsua'	«...zorrotz eta odolgabe; zoli eta trakets...»	(155)
zozo 'txotxoloa'	«Bestelako gauza Garaidi jauna, sukaldean zegoen Txomin zozoaren ondoan!»	(25)
zurgarri 'bestea nahasteko asmoz,	«Ez naiz horren beldur... —hasi zitzaion honetan Garaidi zurgarri .»	(168)
zuri-zuriki 'zurikeriaz, hitz goxoekin'	«Hala ere, zentzu pixka bat sartu arte, bederen, bere ondoan edukitzea hobe izango zela-eta, zuri-zuriki bereganatu zuen.»	(32)